

# HAURRENTZAKO IKUSKIZUN ESZENIKOAK 2024 ARTES ESCÉNICAS URRETXU-ZUMARRAGA

**Otsailak 18 febrero**

**ANBOTOKO MARI**

**Logela Multimedia**

55 min – 3-10 urte/años

Gari, mutiko txoro bat, lagunekin haserretu eta bakarrik abiatuko da Anbotora. Mariren haitzuloan sartu eta harri magiko bat aurkituko du. Harria bertan uzteko esaten dion ahotsari kasurik egin gabe, lapurtu eta alde egingo du, harria lagunei erakusteko asmoarekin. Anbotoko Mari atzetik abiatuko zaio mendirik mendi eta Garik gero eta magia txoroagoak egingo ditu harriarekin, Marik harrapa ez dezan. Marik Tartaloren, iratxoen eta beste jeinu batzuen laguntza eskatu beharko du harria berreskuratzeke.

*Gari, se enfada con sus amigos y decide aventurarse solo hacia Anboto. Una vez allí, entra en la cueva de Mari y descubre una piedra mágica. A pesar de escuchar una voz que le advierte que deje la piedra donde está, Gari decide robársela y llevársela para mostrársela a sus amigos. Sin embargo, Anbotoko Mari descubre su acción y le persigue a través de las montañas. Gari utiliza la piedra mágica para realizar poderosos actos de magia con el fin de evitar que Mari lo atrape. Ante la situación, Mari se ve obligada a pedir ayuda a Tartalo, duendes y otros genios para recuperar la piedra.*



**Martxoak 17 marzo**

**LOTI EDERRAK**

**Glu Glu produkzioak**

59min – 3-12 urte / años

Gure fabulan Gaizkiñek sare sozialen erresuma kontrolatzen du. Tiki Taka sarearen in-fluencer nagusia da bera. Bertan, gazteak ustez ikusgarriagoak eta polita-goak izateko, haien irudiak argitaratzen dituzte, zer eta arrakastaren bila.

Gazte horietako bat, Goizeder, malefizio baten biktima izango da: party ba-terako soinekorik fashionena josten ari dela, orratzarekin ziztatu eta lo ge-ratuko da, telefono mugikorren eta sareen sorginpean. Esmatzeko modua benetako lagunengatik filtrorik gabeko begirada jasotzea izango da.

*En esta obra Gaizkiñe controla el reino de las redes sociales. Ella es la influencer de la red imperante, Tiki Taka, en la que las y los jóvenes se muestran cada cual supuestamente más espectacular con sus imágenes y filtros.*

*En un arrebatto de ira, Gaizkiñe echará un maleficio a Goizeder. Ella y su entorno quedarán dormidas para siempre bajo el embrujo de los teléfonos móviles y las redes. Sucederá el día en el que se pinchen cosiendo el vestido más fashion para su photo party. Solo podrán salvarse si alguien les crea una imagen de filtro verdadero.*



# HAURRENTZAKO IKUSKIZUN ESZENIKOAK 2024 ARTES ESCÉNICAS URRETXU-ZUMARRAGA

**Apirilak 21 abril**


**EZ GARA JAITSIKO!**

**Pirritx, Porrotx eta  
Marimotots**

70 min – Adin guztiak / todas las edades

Marimotots zuhaitz baten adaburura igo da, han goitik lurra hobeto ikusteko. Pirritxek eta Porrotxek atzetik jarraituko diote. Eta zuhaitzez zuhaitz eta adarrez adar, espero gabeko lekuetara helduko dira.

*Marimotots sube a la copa de un árbol para ver mejor la tierra desde arriba. Pirritx y Porrotx la siguen. Y de árbol en árbol y de rama en rama llegarán a los lugares más inesperados.*



**Maiatzak 19 mayo**

**IRATXOEN KANTU  
SEKRETUAK**

**Gookapi**

45 min – 0-100 urte

Iratxoen Kantu Sekretuak magiaz beteriko ikuskizuna da. Iratxoen kantu sekretuen bidez Gookapi baso magikoan murgilduko gara, eta iratxoen sekretu ugari ezagutuko ditugu. Haiekin batera gure ingurune naturala maitatzen eta babesten ikasiko dugu. Pintxo iratxoak, 3D abatar elkarreragileak, ikus-entzuleoi bere unibertso sekretuak kontatuko dizkigu eta baita mundu magikoan murgiltzeko kanta, hitz eta koreografiak erakutsiko ere.

*Iratxoen Kantu Sekretuak es un espectáculo lleno de magia. A través de las canciones secretas de los duendes nos adentraremos en el bosque mágico Gookapi y conoceremos los numerosos secretos de los duendes. El duende interactivo en 3D Pintxo nos contará a los espectadores sus secretos del Universo y nos mostrará canciones, palabras y coreografías para adentrarse en el mundo mágico.*



**Urriak 20 octubre**


## **ATEAREN BESTALDEAN**

### **Hika Teatroa**

50 min – adin guztiak / todas las edades

NESKA aurrera doa bidean, bere atearekin, izan zen bizitza eraikitzen duten oroitzapenez betetako ate-etxearekin. Berriro bizi nahiko lukeen bizitza, oraintxe bertan balitz bezala. Mendiak eta hiriak ibiltzen ditu, ibaiak eta basamortuak zeharkatu, itsasoaren barrenean galdu. Gaur, ordea, zain dago atearen bestaldean. Egun berezia du. Bere urtebetetze eguna. Atea jo dute?

*La CHICA avanza por el camino con su puerta, la casa de puertas llena de recuerdos que construyen la vida que fue. Una vida que le gustaría volver a vivir, como si fuera ahora mismo. Recorre montañas y ciudades, atraviesa ríos y desiertos, se pierde en el fondo del mar. Hoy, sin embargo, espera al otro lado de la puerta. Tiene un día especial. El día de su cumpleaños. ¿Llamaron a la puerta?*



**Azaroak 17 noviembre**

## **POTX ETA LOTX**

### **Pailazoak**

50 min – adin guztiak / todas las edades

Potx eta Lotx pailazoak berriro etorriko dira maleta abenturaz beteta eta gurekin dibertitu eta ondo pasatzeko gogo biziz.

*Los payasos Potx eta Lotx vendrán de nuevo con la maleta cargada de aventuras y con ganas de divertirse y pasarlo bien con nosotros.*



## Abenduak 15 diciembre

### JON BELDURGABEA

#### Txalo produkzioak


65 min – adin guztiak / todas las edades

Jon gazteak ez daki beldurra zer den, beraz, haren aitak aholku zentzuduna eman dio, behin eta berriro zer ote den azaltzen saiatu ondoren: goxo-goxo bizi den etxea utzita, beldurraren bila abiatzea.

Hasteko Jonek sorgin batekin egingo du topo, eta hark gaztelu sorgindu batera bisitan joatea gomendatuko dio; bertan hiru egun ematea lortzen badu, gaztelua sorginkeriaz libre geratuko da eta "gaztelutik kanporatutako" erregeak bere alabarekin ezkontzen utziko dio.

*El joven Jon no sabe lo que es el miedo, así que su padre le ha dado un consejo sensato, tras intentar explicarle una y otra vez qué es: abandonar la casa en la que vive muy bien, buscar el miedo.*

*Para empezar, Jon se encontrará con una bruja que le recomendará ir a visitarla a un castillo encantado; si consigue pasar tres días allí, el castillo quedará libre de brujería y el rey "expulsado del castillo" le permitirá casarse con su hija.*



## Sarrerak

### Labeagako emanaldiak

17:00

5 €

### Ederrena pilotalekukoa

17:00

7 €

### Zazpi ikuskizunerako bonoa:

- haurra + heldua: 30 €
- haurra: 20 €

## Bonuak

### SALGAI urtarrilaren 16tik aurrera:

- Urtarrilaren 16tik otsailaren 16ra Aizpurunea kultur etxean:
  - o Astelehenetik ostiralera: 11:00 – 13:00 / 17:00 – 19:00
  - o larunbatetan: 11:00 – 13:00
- Otsailaren 16an eta martxoaren 17an: Labeaga aretoan emanaldi egunetan.



Urretxuko udala



**ZUMARRAGA**

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

